



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Debagoieneko Mankomunitateko Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak (HOEI)

Sarrera

Zer dira hizkuntza-irizpideak?

Agiri honetan jasotakoak DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEKO bi hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak dira, eta hizkuntza-irizpide batzuk finkatu nahi ditu Debagoieneko Mankomunitaterako eta zeharka berarekin harremana duten guztientzako.

Irizpide orokor horiek DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEKO erabilera planean gauzatuko dira, eta behar izanez gero, osatu eta zehaztu egingo dira.

Haien betetze-maila eta hartu beharreko neurriak planari jarraipena eginez aztertuko dira, baita aldizka egingo diren ebaluazioetan ere.

Dokumentu honek, onartzen den momentutik aurrera, Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu Juntak 2013/03/21ean onartutako irizpideak ordezkatzeko ditu.

Helburu nagusiak

Hizkuntza irizpideek hiru helburu nagusi dituzte:

- a. Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea eta h i z k u n t z a - berdintasuna lortzea herritar horiek Debagoieneko Mankomunitatearekin zuzenean edo zeharka harremanetan jartzen direnean, horretarako behar diren ekintzak bultzatuz eta helburu hori eragotzen duten oztopoak gaindituz.
- b. Euskararen erabilera normalizatzea eta sustatzea DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEAn euskara zerbitzu-hizkuntzaz gain, **LAN-HIZKUNTZA** izan dadin.

2021eko urtarrilaren 1etik Debagoieneko Mankomunitateari dagokion derrigortasun indizea % 72,58 da, beraz:

Derrigortasun-indizea % 70etik % 100era bitartekoa duten erakundeetan

4. helburua bete beharko da, hau da: arian-arian euskarazko



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

administrazio atalak ezarriko dira

- c. DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA euskararen normalizazioan eredu izatea eta EUSKARAREN ARNASGUNE bihurtzea.

Erabilera normalizatua eta orokorra

Euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza, hizkuntza ofiziala da gaztelaniarekin batera, eta Autonomia Erkidegoko Alor publiko osoa hizkuntza horien ofizialtasuna arautu eta bi hizkuntzen erabilera-berdintasuna bermatu behar du. Helburu hori lortzeko, EAEko Sektore Publikoak euskararen erabilera gero eta gehiago erraztuko du, bai barneko jardueretan, baita kanpoan zabaltzen direnetan ere.

Hizkuntza ofizial batean egindako jarduketan baliotasun juridikoa

Hizkuntzaren ikuspegitik, hizkuntza bat edo bestea aukeratzeak ez du esan nahi administrazioak dituen egintza juridikoen eta jardueren balio juridiko osoa² gutxituko denik. Debagoieneko Mankomunitateak jarduerak euskaraz egitea erabaki ahal izango du errealitate soziolinguistikoak horretarako aukera ematen diolako. Nolanahi ere, uneoro ziurtatu beharko zaie herritarrei administrazioarekin harremanetan jartzeko erabiliko duten hizkuntza ofiziala aukeratzeko eskubidea dutela.

Herritarren hizkuntza-eskubideak eta Debagoieneko Mankomunitatearen obligazioak

Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiek dute euskara eta gaztelania jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, eta botere publikoek eskubide horien erabilera bermatu behar dute. Oinarrizko printzipio horretatik ondorioztatzen da hizkuntza-eskubideak herritarrenak direla, eta ez botere publikoenak, eta azken hauei dagokiela eskubide horiek errespetatzea eta betetzen direla bermatzea. DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEAREN **betebeharra** ere bada eskubide horren erabilera bermatzea, langile publikoek herritarrei eskaintzen dieten zerbitzuaren bidez gauzatzen dena.

Horretarako, Debagoieneko Mankomunitateko langileek, herritarrekiko komunikazioetan, herritarrek kasu bakoitzean aukeratzen duten hizkuntza ofiziala erabiliko dute.

Barneko erakunde-komunikazioetan, edo beste administrazio batzuekin dituzten komunikazioetan, hizkuntzen erabilera hizkuntza-irizpide hauetan ezarritakoaren arabera izango da, ahoz zein idatziz, kontuan hartuta euskara dela erakundeko lan hizkuntza.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Kalitatezko komunikazioa

Debagoieneko Mankomunitateak kalitatezko komunikazioa sustatu behar du, estilo zuzen, egoki eta ulergarrian, herritarrek mezuak ahalegin handirik gabe ulertzeko eskubidea dutela jakinda.

Komunikazio telematikoa

Sektore Publikoak ere komunikazio telematikoaren aldeko apustu garbia egin du eta hedatzen ari da. Kontuan hartu behar da komunikazio digitala ez dela komunikazio analogikoa dagoen-dagoenean formatu elektronikora eramatea; hori baino askoz gehiago da. Komunikazio digitalak berezko kodigoak ditu, bere baliabide estilistikoak, eta horiek guztiak aintzat hartu behar dira komunikazio egokia lortzeko.

Diskriminaziorik gabeko hizkuntza

Debagoieneko Mankomunitateak hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabili behar du irudi eta hizkera mota guztietan, zuzenean eta beste pertsona edo entitate batzuen bitartez sortzen dituen dokumentu eta euskarrietan.

Hizkuntza irizpideak bi ardatz nagusitan banatuta daude: lehenengo ardatzean kudeaketarekin lotutako irizpideak zehazten dira, eta bigarren ardatzean erabilerarekin lotutako irizpideak, euskara zerbitzu hizkuntzaz gain, LAN HIZKUNTZA izan dadin.

1.ARDATZA: KUDEAKETA

Kudeaketari dagokion ardatza 6 arlotan banatuta dago: Euskararen kudeaketa orokorra, lidergoa, langileak, gaitasuna, euskararen erabilera sustatzeko estrategiaren komunikazioa eta hizkuntza klausulak

1. Euskararen kudeaketa orokorra

DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEAn, herritarren hizkuntza-eskubideak zaindu eta bete daitezzen, hizkuntza ofizialen kudeaketa erakundeko kudeaketa-sistema orokorraren barruan txertatuta egon beharko da. Hau da, hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzea erakundeak hartutako erabaki estrategikoa da, eta bere erronken artean dago euskararen erabilera sustatzea hizkuntza bien arteko erabilera-berdintasuna lortze aldera. Horretara bideratu du bere plan estrategikoa eta helburu horrekin lerrokatu ditu hizkuntza-irizpide hauek.

1.1. Hizkuntza ofizialak kudeatzeko egitura eta funtzioak

Debagoieneko Mankomunitatearen barruan, Lehendakariaren eta sail bakoitzeko arduradun teknikoaren eta arduradun politikoaren bitartez ziurtatuko da hizkuntza irizpideak ezagutzen eta betetzen direla.

Plangintzaldi berri honetan, euskara zehar-lerroa dela kontuan hartuta, ezinbestekoa da zerbitzu bakoitzak hizkuntzaren kudeaketa ere bere egitea sailtako kudeaketa planetan.

Euskararen erabileraren kudeaketa lan-esparru guztietan modu sistematikoan txertatzeko, sail bakoitzaren izaera eta ezaugarriak kontuan hartuta erabaki beharko da zein den sistema egokiena. Nolanahi ere, sistema egituratu horrek honako zeregin hauek izango ditu, besteak beste, erabilera plana diseinatzea eta onartzea, ekintzen proposamenak lantzea, planak kudeatzea eta horiei jarraipen sistematikoa egitea.

Hizkuntzaren kudeaketarako proposatuko diren egiturek, gutxienez, lau ezaugarri hauek izatea komeni da:

- Langile zein arduradunek (politikoak zein teknikoak) osatuta egotea.
- Zeharkako izaera izatea.

- Erabakitzeke ahalmena edukitzea.
- Funtzionamendu malgua eta lanerako eraginkorra izatea.

Egitura horiek jarraipen sistematikoa egingo diete bai erabilera planari, bai hizkuntza-irizpideei, eta ikusitako emaitzen arabera helburu berriak ezarri, planteamendua aldatu, edo mekanismoak egokituko ditu. Etengabeko hobekuntza lortzera bideratuta dago, beraz, jarraipen sistematikoa.

Ondorengo azpiegitura sortu/erabiltzea proposatzen da:

- **GOBERNU JUNTA**
 - Hizkuntza irizpideak eta plana onartuko ditu, baita indarrean dauden bitartean egingo zaizkion aldaketak ere.
- **BATZORDE ERAGILEA** (Lehendakaria, batzorde nagusietako ordezkari politikoak,...)
 - Hizkuntza irizpideen dokumentua landu.
 - Lehentasunak markatu
 - Dagokion lantaldeak egindako proposamenak baloratu eta dagokion akordioa bideratu.
 - Urteko helburuen betetze mailaren balorazioa egin.
- **LANTALDEA/K** (langileek osatutakoa) (helburuaren eta zereginaren arabera desberdina izan daitekeena)
 - Ezarritako helburuak lortze aldera, urtean urteko zereginak zehaztu (ekintzak, epeak, baliabideak ...)
 - Helburuen betetze maila balioztatu eta egokitzapen neurriak proposatu, hala behar izanez gero.
- **EUSKARA TEKNIKARIA**
 - Plana egoki garatzeko behar diren kontrol mekanismoak sortu eta hizkuntza irizpideen eta planaren beraren jarraipena egin.
 - Urtean egin den lanaren balorazio txostena egin.
 - Behar izanez gero, langileen eta ordezkari politikoen prestakuntza planifikatu eta bideratu.
 - Informazio eta komunikazio plana prestatu langileei eta ordezkari politikoei begira (Harrera linguistikoaren protokoloa).



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2. Lidergoa

2.1.-Liderren jarrera eta egitekoa

Debagoieneko Mankomunitateko arduradun politikoez gidari izan behar dute euren sailtako hizkuntza-politikan. Hizkuntzen kudeaketa egokia sustatuko dute (normalizazio teknikariekin batera), eta zerbitziburuen ardura izango da kudeaketa hori gauzatzea eta lankideen artean zabaltzea.

Erakundeko arduradun politikoez, nahiz haiek izendatutako pertsonak, eta arduradun teknikoek era proaktiboan hartuko dute parte erabilera planaren diseinu, garapen eta jarraipenean. Horretarako, funtsezkoa da hauei erreparatzea:

- Erakundearen ordezkari gisa euskararekiko jarrera aitzindaria erakutsiko dute.
- Lidergoa agertuko dute hizkuntzen kudeaketari buruz hartutako erabakietan.
- Euskararekiko erakundearen xedea eta ikuskera (bisioa /estrategia...) zein diren jakin eta onartuko dute.
- Estrategia gauzatzen eta helburuak lortzen inplikatu dira, eta horretarako foroetan, bileretan... aktiboki hartuko dute parte.
- Euren kargupeko pertsonak euskararen normalizazioan inplikatu dituzte eta sustapen-lana egingo dute.
- Erabilera planean zehaztutako helburuak lortzeko behar besteko tresnak eta baliabideak jarriko dituzte.
- Erakundearen hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena egingo dute.
- Erabilera planean zehaztutakoa bete ezean, neurri zuzentzaileak martxan jarriko dituzte.

2.2.-Jarraipen sistematikoa egiteko informazio-sare egonkorra

Erabilera planaren jarraipen sistematikoa modurik eraginkorrean egite aldera, Debagoieneko Mankomunitateak erabilera planean zehaztuko du hizkuntza irizpideen jarraipena sistematikoa zelan egin. Lehendakariaren, sail bakoitzeko arduradun teknikoaren eta arduradun politikoaren bitartez, hizkuntza irizpideen jarraipena egingo da.

3. Langileak

Sail bakoitzak informazioa emango die langileei onartutako erabilera planari eta hizkuntza-irizpideei buruz, langileek uneoro argi izan dezaten zein den beren erakundearen bisio eta estrategia hizkuntzen kudeaketaren alorrean; eta noiz, norekin, zein hizkuntzatan egin behar duten beren lan-jardunean.

Hizkuntzen arloa zeharlerroa denez, pertsonen kudeaketa-prozesu guztietan landuko da.

Langile berri bat lanean hasten den bakoitzean *Harrera “linguistikoaren” protokoloa* aplikatuko da. PLangintzaldiaren hasieran gainontzeko langile guztiei ere emango zaie honen berri.

Hona hemen Protokoloaren helburu nagusiak:

- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea, euskara lan-hizkuntza gisa indartuz.
- Langile berriek ezarritako hizkuntza-irizpideen arabera jardutea lanean.
- Lankideekiko eta arduradunekiko komunikazio profesionalak euskaraz egitea baldintzek ahalbidetzen duten esparru eta arlo guztietan.
- Langileen jardura euskararen erabilera normalizatzeko ere baliagarria izatea.
- Erabilera faltaren ondorioz, langileek euskarazko hizkuntza- gaitasuna gal ez dezaten lortzea eta hizkuntza eguneroko praktikaren bidez indartzea.

4. Hizkuntza-gaitasuna

Debagoieneko Mankomunitateak plangintzaldiaren hasieran berrikusiko ditu hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak. Hauek dira berrikusketaren helburu nagusiak:

1. Hizkuntza-eskakizunak modu egokian esleitu direla ziurtatzea.
2. Derrigortasun-datak normalizazioa arautzen duen Dekretuan jasotako lehentasunen arabera jarrita daudela bermatzea (jendaurreko lanpostuak, harreman-sarea).
3. Euskararen normalizazioan izandako lorpenak egonkortzea eta arduradun nahiz langileek egindako ahaleginari ahalik eta etekinik handiena

ateratzea.

Debagoieneko Mankomunitateko arduradun politiko zein teknikoei eta langileei, haien euskara gaitasunaren arabera, ahal den neurrian, euskaraz lan egingo dute eta euskara, lan-hizkuntza gisa bezala sustatuko dute haien sailetan. Horretarako, Debagoieneko Mankomunitateak langileen esku jarriko dituzte euskaraz lan egin ahal izateko beharrezko tresna eta baliabideak.

5. Euskararen erabilera sustatzeko estrategiaren komunikazioa

Debagoieneko Mankomunitateak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatuko die herritarrei eta gainerako interes taldeei (beste administrazio publikoak, hornitzaileak, elkarteak, enpresa pribatuak, etab.); izan ere, horretara bideratuko du bere plan estrategikoa Debagoieneko Mankomunitateak eta helburu horrekin lerrokatuko ditu hizkuntza- irizpideak.

Komunikatzen duena ez da soilik izango euskara sustatu nahi duela, baizik eta Debagoieneko Mankomunitateak erabaki estrategiko bat hartu duela, eta bere erronken artean euskara sustatzea dagoela. Ondorioz, estrategia hori gauzatzera bideratutako tresna eta baliabideen berri ere emango die herritar eta interes-taldeei.

Horrez gain, Debagoieneko Mankomunitateak euskararen erabilera normalizatu eta biziberritzeko beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan parte hartuko du, bere praktika onak ezagutaraziz eta besteen praktiketatik ikasiz.

6. Hizkuntza-klausulak

6.1 Kontratu publikoak / kontratazio administratiboak

a) Debagoieneko Mankomunitateak enpresen esku uzten dituen lan eta zerbitzuetan, berak bere baliabideak erabiltzen dituen izaten duen jokaera eskatuko die enpresa horiei ere. Beraz, Mankomunitateak berak bete beharko lituzkeen hizkuntza baldintzak bete beharko dituzte azpikontrataturako lan eta zerbitzuetako esleipendunek.

b) Kontratu bidez emandako jarduerak edo zerbitzuak Debagoieneko Mankomunitateak berak emanak izango balira bezala jasotzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei.

c) Debagoieneko Mankomunitatearen kontratazioetarako pleguek modu esplizituan jasoko dute kontratatuko den lan edo zerbitzuan zein hizkuntza irizpide erabili beharko

dituen esleipendunak.

d) Eman beharreko zerbitzuak erabiltzaileekiko, edo, oro har, jendearekiko harremanak dakartzanean, neurri hauek ezarriko dira:

- Erabiltzaileek eta, oro har, herritarrek euskaraz –edo, hala aukeratuz gero, gaztelaniaz atendituak izateko duten eskubidea errespetatuz eman beharko du zerbitzua kontratistak, bai ahoz bai idatziz.
- Herritarrentzako inprimakiak, oharrak eta jakinarazpenak euskaraz eta gaztelaniaz, bietan, eman beharko ditu kontratistak, herritarrek berariaz inolako aukeraketarik egin ez badu, eta euskaraz eman beharko dizkio berariaz euskara hautatzen badu.

e) Kontratazioa egin eta kudeatzeko eskumena duten organoek bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte kontratudunek atal honetan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko eta erabilitako hizkuntzen zuzentasuna zaintzeko.

f) Esleipenaren helburua obra bat denean, jende aurrerako seinale, txartel eta oharrak euskara hutsean egongo dira. Komunikazioa bermatzeko beharrezkoa dela ikusten denean, mezua euskaraz eta piktogramaz jarriko da (biak batera), eta piktogramarik ez dagoenean bakarrik jarriko dira ele bitan, betiere euskarari lehentasuna emanez. Seinale horien egokitasuna eta hizkuntza zuzentasuna obra esleitu duen departamentuaren erantzukizuna izango da eta horretarako Euskara teknikariaren laguntza eta aholkularitza izango ditu.

g) Esleipenaren helburua hornidura bat denean, kontratuaren xede diren ondasunei dagozkien erabilera eskuliburuak eta gainerako dokumentazioa, softwareetako testuzko zein soinuazko interfazeak barne, bi hizkuntzetan eskaini behar ditu esleipendunak, kontratua egiten duen organoak zehazki besterik adierazten ez badu.

h) Kontratuaren helburua laguntza edo aholkularitza zerbitzu bat eskuratzea denean, baldintza hauek beteko dira:

- Esleipendunak gutxienez euskaraz aurkeztu beharko ditu lanak, kontratua egiten duen organoak zehazki besterik adierazten ez badu. Debagoieneko Mankomunitateak ez du bere gain hartuko mota horretako kontratu baten bitartez sortutako lan idatzien itzulpenik.
- Hizkuntza ofizialen erabilera zuzena zaindu eta begiratzea kontratua egiten duen organoaren erantzukizuna izango da, eta horretarako Euskara teknikariaren laguntza eta aholkularitza izango ditu.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- Kontratuaren helburua hezkuntza den kasuan (Lanbide heziketa, heziketa osagarria, ikastaroak, formazioa, jardunaldiak,...) arreta berezia jarriko da hizkuntza irizpideak betetzeari dagokionez erabiltzaileen hizkuntza eskubideak kontuan hartuta.

i) Aurreko puntuetan aipatutako hizkuntza irizpideak eta horiek ez betetzeak dakartzaten ondorioak kontratu bakoitzaren baldintza administratibo berezien agirian jaso eta zehaztu behar dira derrigorrean, eta kontratua egiten duen organoaren erantzukizuna izango da hala egitea.

Hizkuntza bien ofizialtasunari lotutako errekerimenduetan, herritarrei arreta ematea eskatzen duten kontratuetan edo zerbitzu bat ematea helburu duten kontratuetan, honako hau bermatu beharko da kontratuaren preskripzio teknikoetan:

- a. Proporzionaltasun-printzipioa bermatuko da, kasu bakoitzaren ezaugarrien, xedearen eta hartzaileen arabera.
- b. Kontratuaren bidez bete behar diren eginkizunei lotuta egongo dira.
- c. Enpresak bere baliabideen edo besteren baliabideen bitartez egiaztatu ahalko ditu.

6.2 Hitzarmenak / lokalen lagapena / laguntzak

- a. Debagoieneko Mankomunitateak, izaera desberdineko entitateekin, herritarrei izaera desberdineko zerbitzuak emateko egiten diren hitzarmenetan, hizkuntza-irizpideak ezarriko dira eta horien jarraipena egin. (Suradesa...)
- b. Instalazioak eta materialak erabili ahal izateko baimena ematerakoan ere hizkuntza baldintza horren berri emango zaie interesatuei, eta bermea itzuli baino lehen egin ohi diren egiaztapenetako bat izango da hizkuntzari buruzkoa ere. (EEZ arautegia).
- c. Debagoieneko Mankomunitateak onuradun / laguntzaileekin daukan harremanean ere hizkuntza irizpideak kontuan hartuko dira, batez ere hirugarrenei ematen dieten zerbitzua kontuan hartuta (gidetako eta webguneko jatetxeak, kalitatea, enpresa munduko eragileak...)



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2.ARDATZA: ZERBITZU HIZKUNTZA ETA LAN HIZKUNTZA

2.1. Zerbitzu-hizkuntza

2.1.1. [Erakundearen irudia](#)

Errotulazioa

a) Kanpo errotulazioa

- **Erakundearen izen ofiziala** : Erakundearen izen ofiziala **Debagoieneko Mankomunitatea** da, beraz gaztelaniazko testuetan ere hala erabiliko dugu.
- Egoitzetan eta egoitzak ez diren Debagoieneko Mankomunitateko gainerako ondasunetan (ibilgailuak, edukiontziak...) jarriko diren inskripzio eta errotuluak euskaraz egongo dira.
- Debagoieneko herrietako kale eta leku izenak zerrenda ofizialaren arabera idatzi behar dira. Euskarazkoa eta erdarazkoa ofizialak badira, euskarazkoa erabiliko da.
- Komunikazioa bermatzeko beharrezkoa dela ikusten denean, mezua euskaraz eta piktogramaz jarriko da (biak batera), eta piktogramarik ez dagoenean bakarrik jarriko dira ele bitan, betiere euskarari lehentasuna emanez.
- **Katalogoak, gidak, argitalpenak eta prentsa eta komunikabideetako iragarkiak** gutxienez euskaraz egongo dira. Komunikazioa bermatzeko ele bitan argitaratzea beharrezkoa denean euskarari lehentasuna emango zaio.
- Debagoieneko Mankomunitateko gida, argitalpen edo gainerakoetan kanpoko eragileak agertzen badira, hauei ere gutxieneko hizkuntza irizpideak betetzea eskatuko zaie.

Bi hizkuntza ofizialez gain, errotulazioa beste hizkuntza batzuetan ere egin behar denean, hurrenkera hau erabiliko da: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa eta bestelakoak.

b) Barne errotulazioa

- Debagoieneko Mankomunitateko egoitzetan jarriko diren inskripzio eta



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

errotuluak euskaraz egongo dira.

- Paper-gauzak osatzen duten dokumentu-ereduak euskara hutsean egongo dira, baita digitalak ere.
- Komunikazioa bermatzeko beharrezkoa dela ikusten denean, mezua euskaraz eta piktogramaz jarriko da (biak batera), eta piktogramarik ez dagoenean bakarrik jarriko dira ele bitan, betiere euskarari lehentasuna emanez.

Ikus-entzunezkoak

- Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak- bozgorailuz, audioa duten tresnez edo antzeko bitartekoez zabaldukoak, euskaraz emango dira. Komunikazioa bermatzeko beharrezkoa dela ikusten denean, euskaraz eta ondoren gaztelaniaz emango dira.

Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak

a. Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak

- a. Debagoieneko Mankomunitatearen iragarpen ofizialak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira.
- b. Debagoieneko Mankomunitateak prestatzen dituen kanpainak, publizitate mezu eta gisakoak euskaraz sortuko dira. Bereziki zainduko da euskarazko leloak euskaraz sortuak direla, eta ez direla gaztelaniazko leloaren itzulpen hutsa.
- c. Iragarpenok euskara hutsez argitaratuko dira euskarazko hedabideetan. Gaztelerazko komunikabideetara bidali beharrekoak ele bitan.
- d. Komunikazioa bermatzeko beharrezkoa dela ikusten denean, ele bitan zabalduko dira, betiere euskarari lehentasuna emanez.
- e. Prentsaurrekoak, ekintza instituzionalak, aurkezpenak... euskaraz egingo dira. Ele bitan edo, ele anitzetan egin beharra dagoela ikusiz gero, euskarari lehentasuna emango zaio (lehenengo, euskaraz eta ondoren, beste hizkuntzan).

a. Jendaurreko ekitaldiak, jarduerak eta parte hartze prozesuak

- a. Debagoieneko Mankomunitateko langileak eta kargu publikoak jarduera



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

publikoetan eta prentsa-agerraldietan euskaraz arituko dira edo euskarari lehentasuna emanaz. Kasuan kasu, gaztelaniazko laburpen idatzia egiteko aukera aztertuko da. Sor daitezkeen galderei egindako hizkuntzan erantzun zuzena.

- b. Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako orotariko jardueretan (emanaldiak, ikastaroak, formazio saioak, jardunaldiak, hitzaldiak, jaialdiak, bisita gidatuak eta abarretan) arian arian gero eta euskara hutsezko saio gehiago egiteko ahalegina egingo da.
 - i. Haurrei, nerabeei eta gazteei zuzendutako jarduerak oro har euskaraz antolatuko dira. Nolanahi ere, jardueraren helburuak, gaiak edo hartzaileak aintzat harturik gaztelaniaz edo jatorrizko hizkuntzan ere antolatu ahal izango dira, betiere hartzaileen hizkuntza eskubideak betez gero.
- c. Ekitaldietan edo jardueretan beharrezkoa delako, bi hizkuntza ofizialak erabiltzen direnean, hurrenkera hau erabiliko da: lehenik euskaraz eta ondoren gaztelaniaz.
- d. Gaztelaniaz eskaintzen diren jardueretan ere, euskarazko sarrera egingo zaio ekitaldiaren atal bakoitzari, eta bukaera ere euskaraz emango zaio. Beti berraztertuko da euskararen gutxieneko erabilera.
- e. Ekitaldia kanpoko enpresa batek antolatu behar duenean, kontratazioarako baldintza-pleguetan aurretik aipatutako irizpide horiek jasoko dira.

Ingurune digitala: Webguneak, sare sozialak, mugikorretarako APPak

- Debagoieneko Mankomunitateko web orrietara sartzean, euskarazko orria agertuko da lehenengo, eta orri horretan bertan egongo da gaztelania eta gainerako hizkuntzak hautatzeko aukera, horrelakorik badago. Dena dela, ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak eta hartzaileen berezitasunek hala eskatzen dutenean euskaraz bakarrik azalduko da.
- Izapideak internet edo intranet bidez egiteko aukera ematen denean, izapide horiek benetan euskaraz eta gaztelaniaz egiteko aukera dagoela bermatu beharko da.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- Mezuak hizkuntza bietan argitaratzen direnean, euskarazko mezuari ikusgarritasun handiagoa emango zaio. Sare sozialetan ere bietara zabalduko dira mezuak; lehenengo gaztelaniazko mezua jarriko da eta ondoren euskarazkoa, euskarazkoa aurretik bistaratu dadin
- Debagoieneko Mankomunitateko webgune eta helbide elektronikoek **.eus domeinua** izango dute.

2.1.2. [Herritarrekin harremanak](#)

Debagoieneko Mankomunitateak herritarrei zerbitzua emateko hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira atal eta jarduera esparru guztietan. Herritarrekin dituen harreman mota guztietan bermatu beharko du euskararen erabilera, ahozko eta aurrez aurrezko harremanetan, telefono bidezkoetan, idatzizkoetan eta baita tresna elektroniko, informatiko zein telematikoen bidez gertatzen direnetan ere (internet, posta elektroniko, sare sozialak eta abar), beti ere herritarren hizkuntza aukera kontuan hartuta.

2.1.2.1- Idatzizko harremanak

- Herritarrentzat egiten diren idatzi orokorrak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarari lehentasuna emanez. Horretarako, aurreko orrian euskaraz eta atzekoan gaztelaniaz jarriko da. Kasuren batean egokiago ikusi bada bi zutabe erabiltzea, letra-motaren bidez, euskarari lehentasuna emango zaio. Bestalde, zenbait atal (data, sinadura, kargua...) euskara hutsez jarriko dira.
- Herritarrek euskaraz aurkeztutako eskabideak euskaraz tramitatuko dira. Gaztelaniaz egindako eskaerari ele bitan erantzungo zaio.
- Espediente edo prozedura administratiboan pertsona batek baino gehiagok parte hartzen dutenean eta espediente edo prozeduraren hizkuntzari buruz adostasunik ez badago, espediente edo prozedura hori bultzatu duen pertsonak hautatutako hizkuntza erabiliko da, betiere, beste parteei prozeduraren tramiteen itzulpena emango zaiela bermatuz.
- Kanpoko eskatzaileak, espedienteak bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan eskuratzeko eskubidea duenez, eskaera zein hizkuntzatan egin duen hartuko da kontuan. Eskaeraren eta espedientearen hizkuntza bat ez badatoz, automatikoki itzuli egingo da espedientea eta eskatzaileari ahalik eta kalterik gutxien eragiteko

beharrezkoak diren bitartekoak jarriko ditu Mankomunitateak.

- Zabalpen orokorreko idatzietan (informazio orriak, oharrak...) hartzaile multzoaren ezaugarriak eta zein herritakoa den kontuan hartu eta, ahal denean euskaraz egingo dira, herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatzen direla kontuan hartuta. Udal bakoitzak dituen hizkuntza irizpideak ere kontuan hartuko dira.

2.1.2.2 -Ahozko harremanak

- Langilea euskaraz zuzenduko zaio herritarrari eta herritarrak hautatutako hizkuntzan bideratuko du langileak zerbitzua.
- Lan ordutegiko ahozko harremanei dagokienez, kontuan hartu behar da jendaurreko lanpostuetan (bai leihatila barruan zein kanpoan) herritarrari lehenengo hitza euskaraz egin arren, herritarrarentzako pisu handia daukala langileak edota ordezkari politikoak beraien artean zein hizkuntzatan hizketan ari diren entzuteak; euren artean euskaraz hizketan ari badira, herritarraren begietan euskara prestigioatu egiten da eta. Hori dela eta, garrantzi handikoa da lan ordutegian udal langileek eta ordezkari politikoek euren artean euskaraz berba egitea. Ildo honi jarraituz, euskarazko hizkuntza ohiturak finkatzeko ekinbideak bultzatuko dira hala egoki ikusiz gero.
- Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak (erantzungailu automatikoz, bozgorailuz, ekitaldietan, e.a. emandakoak) euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, esandako hurrenkera horretan. Ekintzaren izaerak eta hartzaileen berezitasunek eskatzen dutenean euskaraz soilik.



2.2. Lan-hizkuntza

2.2.1. BARNE-HARREMANAK

2.2.1.1 Lanari lotutako hizkuntza paisaia

Lanari lotutako errotulazio finkoa (apal, fitxategi, artxibategi, karpeta, ...) eta noizean behin idatzitako oharraz euskaraz idatziko dira.

2.2.1.2 Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala

- **Debagoieneko Mankomunitateko lan hizkuntza euskara izango da.** Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileek euskaraz sortuko dituzte txostenak. Langileek ofizioz sortzen duten dokumentazioa (txostenak, ofizioak, gutunak, gastu proposamenak, oharraz ...) euskaraz egongo dira eta hala bidaliko da sail batetik bestera edo dagokion organora, betiere herritarrek parte hartzen duten espediente edo prozedura administratiboetarako legezko xedapenetan emandako jarraibideei kalterik eragin barik.
- Bere lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta daukaten langileei bi hizkuntza ofizialetan jarduteko gaitasuna aitortzen zaie, eta hizkuntza batean zein bestean erantzungo diote lanari, kasu bakoitzean, Mankomunitateak emandako hizkuntza irizpideen arabera, erakundearen lan hizkuntza euskara dela kontuan hartuta
- Dokumentazioa hizkuntza bakarrean sortuko da, euskaraz lehentasunez, herritarrekiko komunikazioetan erabili beharreko hizkuntza irizpideei buruz plan honetan emandako jarraibideen kalterik gabe.
- Aldizkari Ofizialean argitaratu beharreko dokumentazioa euskaraz sortuko da, eta itzulpena egin ondoren, bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko da.
- Euskara ofiziala den lurralde batean kokatutako erakunde publikoei bidali beharreko idatzi guztiak euskaraz izango dira.
- Euskara ofiziala ez den lurralde batean kokaturiko erakunde publikoei bidali beharreko idatzi guztiak euskaraz eta gazteleraz egingo dira.
- Espedienteari Debagoieneko Mankomunitateak ematen dionean hasiera, euskaraz izapidetuko da.

2.2.1.3 Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala

- Erakundearen barruko lan bileretako ahozko harremanak: euskara izango da Debagoieneko Mankomunitatearen lan hizkuntza, bai Mankomunitateko bileretan zein bestelako lan jardueretan.
- Erakundearen barruko telefonozko harremanak: langileen arteko telefono bidezko harremanetan euskara erabiliko da, solaskidearen ulermena bermatzen ez denean izan ezik.
- Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak: barruko harremanetan langileen arteko aurrez aurreko harremanetan euskara erabiliko da (komunikazioa euskaraz izango da, bai elkarrizketa formaletan bai ez formaletan).

2.2.2. KANPO-HARREMANAK

2.2.2.1. Administrazioa

- Administrazioekiko idatzizko harremanak: euskara ofiziala den lurralde batean kokatutako erakunde publikoei bidali beharreko idatzi guztiak euskaraz egongo dira. Era berean, EAEko beste administrazioei bidaltzen duten dokumentazioa euskaraz egon dadin eskatuko zaie. Euskara ofiziala ez den lurralde batean kokatutako erakunde publikoen kasuan, idatzi guztiak euskaraz eta kanpoko administrazio horrek duen hizkuntza ofizialean egingo dira.(Gazteleraz).
- Administrazioekiko ahozko harremanetan, langileak lehen hitza euskaraz egingo du, eta euskaraz jarraituko du solaskidearen ulermena bermatuta badago. Solaskide euskaraduna lortzen saiatuko da.

2.2.2.2. Erakunde pribatuak: finantza entitateak, produktu eta zerbitzu hornitzaileak,etb.

- Debagoieneko Mankomunitateak harremana duen erakunde pribatuei euskaraz bidaliko dizkie idatziak.
- Ahozko harremanetan, langileak euskaraz hitz egingo du, eta euskaraz jarraituko du solaskidearen ulermena bermatuta badago. Solaskide euskaraduna lortzen saiatuko da.
- Administrazio-kontratuak hizkuntza baldintzak (**entitate pribatuekin**).Obra kontratuak, herri-lanen emakidak, hornidura-kontratuak, aholkularitza eta zerbitzu kontratuak, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak zein bestelako kontratuak esleitzeko garaian, hizkuntza irizpideak txertatuko dira. Baita kontratu txikietan eta hornikuntzetan ere.

Era berean, baldintza-agirietan hizkuntza-irizpideak egoki jasota dauden bermatzeko Euskara teknikariaren berariazko txostena beharko da tramitazioa burutzeko. Gauza berbera egin beharko da

antzeko tramitazioekin hala badagokio. Esleipena erabakitzerakoan eta esleipendunari kontratua luzatzerakoan ere hizkuntza-txostena beharrezkoa izango da.

2.2.3. PRESTAKUNTZA

Langileen prestakuntza espezifikoak:

- Mankomunitateak neurriak hartuko ditu, zuzenean berak antolatutako ikastaro espezifikoak euskaraz izan daitezen.
- Langileen prestakuntza ikastaroak kudeatzeko bitartekoak (tresna informatikoak, izen ematea, balorazio orriak ...) euskara hutsean egongo dira ahal den guztietan, eta ikastaroen kudeaketan beti hartuko da kontuan hizkuntzaren aldagaia.
- Kanporako ematen diren ikastaro espezifikoak. Aurrez hizkuntza zehaztu.

Langileen euskarazko prestakuntza:

- a. Beren lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa duten langileak lan ordutan joango dira euskarazko ikastaroetara eta matrikula gastuak Debagoieneko Mankomunitateak ordainduko ditu. Asistentzia %80ra iristen ez bada eta aprobetxamendua justifikatzen ez bada, matrikularen zenbatekoa itzuli eta lanorduak sartu beharko ditu langileak.
- b. Beren lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa ez duten langileak eta dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatua dutenak ere joan ahal izango dira euskarazko ikastaroetara. Ikastaro horietako matrikula gastuak Debagoieneko Mankomunitateak ordainduko ditu. Dagokien Hizkuntza eskakizuna baino bat gehiago eskuratu nahi dutenen kasuan, eskola orduen %50a lan ordutzat joko dira. Dagokiena baino bi hizkuntza eskakizun gehiago eskuratu nahi dutenen kasuan klase orduak ez dira lanordutzat hartuko. Asistentzia %80ra iristen ez bada eta aprobetxamendua justifikatzen ez bada, matrikularen zenbatekoa itzuli beharko du langileak eta lanorduak sartu beharko ditu.
- c. Lanpostuen zerrendan ageri ez diren langileak, Mankomunitaterako lanean ari badira, derrigortasun-eperik ez duten langileen baldintza berdinetan joan ahal izango dira euskalduntze-ikastaroetara.
- d. Dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko prestakuntzaz gainera, beharra ikusiz gero, euskara maila etengabe hobetzen lagunduko dien hizkuntza prestakuntza emango zaie langileei, bai eta bere lana euskaraz egiteko behar dutena ere.

2.2.4. BALIABIDE INFORMATIKOAK

- Debagoieneko Mankomunitateko web orrietara sartzean, euskarazko orria agertuko da lehenengo, eta orri horretan bertan egongo da gaztelania eta gainerako hizkuntzak hautatzeko aukera, horrelakorik badago. Dena dela, ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak eta hartzaileen berezitasunek hala eskatzen dutenean euskaraz bakarrik azalduko da.
- Internet bidez izapideak egiteko aukera ematen denean, izapide horiek euskaraz eta gaztelaniaz egiteko moduan egongo dira.
- Sare sozialetan bietara zabalduko dira mezuak. Lehenik gaztelaniazko mezua jarriko da eta ondoren euskarazkoa, euskarazkoa aurretik bistaratu dadin.

o Lanerako aplikazio informatikoak:

- Zerbitzaria edo intraneta euskaraz antolatuta egongo da eta hala eguneratuko da.
- Debagoieneko Mankomunitateko zerbitzuetan programa informatiko komertzial edo orokorrak instalatzean, horiek euskarazko bertsioa badute, bertsio hori instalatuko da. Gaztelaniazkoa erabili nahi duenak, idatziz egin beharko du eskaera, arrazoiak adieraziz.
- Bestalde, programa edo tresna informatikoak hornitzeko kontratuen baldintza pleguetan zehaztuko da ezinbestekoa dela programaren euskarazko bertsioa instalatzea eta defektuz hori lehenetsiko dela. Software berriren bat garatzen denean, euskaraz egiteko eskatuko zaio hornitzaileari.
- Programa, edo aplikazio berri bat erosten denean, euskarazkoa erosiko da. Programa edo aplikazioa erabiltzeko trebakuntza jasotzea beharrezkoa den kasuetan, trebakuntza hori euskaraz jasoko da.
- Euskaraz erabil daitezkeen aplikazioak euskaraz bete edo/eta erabiliko dituzte euren lanpostuari dagokien hizkuntza-eskakizuna duten langileek. Debagoieneko Mankomunitatean sortzen diren aplikazioak euskara hutsez sortuko dira, eta trebakuntza eskainiko zaie aplikazioa euskaraz betetzeko nahikoa gaitasunik ez dutenei.
- Euskal Erakundeetatik datozen aplikazioek euskarazko bertsiorik ez duten kasuetan, euskarazko bertsioa eskatuz idatzia bidaliko da.

2.2.5. SORTZE HIZKUNTZA eta itzulpen irizpideak

Barne-dokumentuak euskaraz sortuko dira. Legez beharrezkoak direlako gaztelaniaz ere behar badira, itzuli

egingo dira.

Itzulpen irizpideak

Kontuan hartu behar dugu plan honen helburu nagusia dela euskararen ezagutzatik erabilerarako jauzia egitea euskara lan hizkuntza izan dadin esparru guztietan.

Hizkuntza ofizialen erabilerarako emandako jarraibideek itzulpen beharrianak dakartzate, plan honetan aurreikusi beharko direnak. Izan ere, hizkuntza ofizial bietan lan egiteko gai diren langileek planean emandako jarraibideen arabera jokatu beharko dute. Arintasun eta eraginkortasun administratiboaren printzipioak bete daitezzen, itzulpen politikak hizkuntzen erabilerarako jarraibideak betetzen lagundu behar du, hau da, jarraibideon osagarri izan behar du.

Itzulpen beharriari aurre egiteko, irizpide hauek erabiliko ditu Debagoieneko Mankomunitateak:

- Agiriak hizkuntza bakarrean sortuko dira, euskaraz lehentasunez. Hortaz, bada, Itzulpen Zerbitzuaren eginkizuna izango da, hala behar denean, agiriak itzultzea.
- Agiri hauek ofizioz itzuliko ditu Itzulpen Zerbitzuak (kanpoko itzulpen enpresak), euskaratik gaztelaniara lehentasunez edo gaztelaniatik euskarara: enkante eta lehiaketetako baldintza orriak, lanpostuen oinarriak eta, oro har, Debagoieneko Mankomunitateak legez ele bitan izapidetzen dituen agiri guztiak.
- Hizkuntza ofizial bat ulertzen nahikoa hizkuntza gaitasuna aitortuta duten udal langile eta zinegotziei ez zaie agiriaren itzulpenik egingo.
- Itzulpen beharrak zentzuzko neurrira ekartzeko estrategiak aztertu eta ezarriko dira. Idatzi hartzailearen (langile, herritar zein kargu politikoen) hizkuntza gaitasuna dela eta, euskarazko testuren bat behar den bezala ulertzeko zailtasuna dutenean edo eduki dezaketela uste denean, ulertzeko laguntza eskainiko zaio: bertako hiztegi eta esamoldeen itzulpena, ahozko azalpenak, pasarte zailenak itzultzea... Ahal den neurrian, saihestu egingo da hasiera-hasieratik testu osoa itzultzea, besteak beste, testuen irakurketa trebatze bide gerta dadin.
- Espediente edo prozedura administratiboan pertsona batek baino gehiagok parte hartzen duenean eta espediente edo prozeduraren hizkuntzari buruz adostasunik ez badago, espediente edo prozedura hori bultzatu duen pertsonak hautatutako hizkuntza erabiliko da, betiere, beste parteei prozeduraren tramiteen itzulpena emango zaiela bermatuz.
- Idatziak ez dira besterik gabe itzuliko. Dokumentuaren hartzaileak, edozein dela ere, itzulpena

eskatzen badu, hitzez hitzeko itzulpena ez den beste bideren bat aztertu eta landu liteke, betiere hartzaile horren hizkuntza eskubideen kaltetan gabe. Adibidez, ahozko edo idatzizko laburpena egitea.

- Itzulpena errazte aldera, itzultzaile neuronalen laguntza izango dute langile guztiek.
- Itzultzaile neuronalek egindako itzulpenen kalitate-maila handia da, baina muga batzuk dituzte; horregatik, funtsezkoa da testuak berrikustea eta, beharrezkoa denean, zuzenketak egitea. Itzultzaile neuronalen erabiltzaileak izango dira sortu dituzten testuen eta testu horiek zabaltzeak izan ditzakeen ondorioen erantzule zuzenak.
- Bi hizkuntzatan argitaratzen diren testuetan eta itzulpena erabili bada, idatzia zein hizkuntzatan sortu den jasoko da.
- Hau horrela izanda ere, Debagoieneko Mankomunitateak itzuli beharreko testuen artean, euren garrantzia, testuaren zailtasun edo zabalkunde handiagatik testu benetan estrategikoak egongo balira, kanpora bidali ahal izango dira itzulpena egin dezaten.
- Kontuan hartu behar da, era berean, itzultzea espedientearen zati dela, behar bezala egingo bada denbora eskatzen duena, eta itzulpena egiteko behar den denbora espedienteak behar duen denbora guztiaren barruan sartu behar da. Ez da onargarria agiriak aurkezteko epea agortzeaz dela korrika eta presaka itzulpen eske jotzea. Hori horrela, itzulpena eskatzen denean ziurtatu behar da eskatutako idatzia itzultzeko arrazoizko epea aurrez planifikatzea.
- Jarduerak hala eskatzen duelako beharrezkoa bada, kontuan hartuko da itzulpen-interpretazio zerbitzuak erabiltzeko aukera.

LEGE OINARRIA

Honako lege hauek hartu dira kontuan irizpideak zehazteko oinarri gisa:

- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.
- 19/2024 DEKRETUA, otsailaren 22koa, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena, Apirilaren 15eko 86/1997 dekretua indargabetzen duena.
- 2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- 9/2017 LEGEA, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena.
- 179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- 3/2022 LEGEA, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoarena.
- 11/2022 LEGEA, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.
- Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, 1992ko azaroaren 5ekoa.